

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure negozio ereduak funtzionatu dezan, ezinbestekoa egiten zaigu beste enpresekin elkartzea. Beraiei esker gure proiektua aurrera atera al izango dugulako. Elkarteetan ezinbestekoa den beste gauza bat lankideen arteko komunikazioa da, hau da, lankideak gure artean harreman egokia edukiko dugu, bestela, hainbat traba jarriko dizkiogu gure proiektuari eta guk ez dugu horrelako ezer nahi.



Gure proiektua zabaltzeko webgune bat sortzea erabaki dugu, gaur egun interneti esker dena errazago eta bizkorrago zabaltzen delako. Gure webgunean azalduko diren gauzak EKOZIR-ekin batera lotura izango dute; ekonomia-zirkularraren erabilera, naturaren hondamendia saihesteko zer egin dezakegun... Gainera webgunea diseinatzeko eta interneten jartzerako momentuan ez ditugu kosturik izango, lagun informatiko batek lagundu egingo gaituelako. Webgune honetan publizitate pixka bat jarriko dugu, eta publizitatu nahi duenari 100 euro hilabetero eskatu dizkiogu (1200 urtean).

Halaber, lokala Donostian zabaldu nahi dugu, baina Donostiako lokalak garestiak direla iruditzen zaigu, horregatik, herrian zabalduko dugu gure lokala baina gure produktua aurrera doan heinean gure bulego printzipala Donostiara mugituko dugu. Izan ere, UGGASA (Urola Garaiko Garapenerako Agentzia) enpresak eskaintzen duena, merkeagoa da. Hilean, 30€ bakarrik ordaindu beharko ditugu eta argindarra, ura, alokairua eta wifi-a barne.



Ez dugu, inolako unetan dudan jarriko, EKOZIR marka patentatuko dugu, ez dugu onartuko beste enpresa batzuk gure ideia kopiatzen badute. Hau da, gure egile-eskubideak edukiko ditugu. Bestela beste enpresek irabaziak lapurtuko dizkigute. Hori aurrera eraman ahal izateko, OEPM-rekin jarriko gara harremanetan (OEPM = Oficina Española de Patentes y marcas).

Aurretik emandako pauso guztiak ez dira nahikoa gure proiektua zabaltzeko, oraindik gehiago nahi dugu. Oraindik elkarte gehiagorekin jarriko gara harremanetan.

Gure artean kontaktuan egotea ezin bestekoa da, bereziki gure bezero garrantzitsuenekin, bezero asko erakarriko dituztelako eta azkenean guk orain behar duguna jendearen arreta bereganatzea da. Bezerorik gabe ez gara ezer ez. Horregatik, bezeroak lortzeko, behar bada, beste enpresa batzuekin lehia ibili beharko gara edota enpresen arteko konparaketa egingo diegu, dena bezeroen arreta mantentzeagatik.

Garraioari dagokionez, guraso baten laguntza edukiko dugu, paketeak jaso edota bidaltzeko. Baina, eskaria oso handia bada garraio enpresa batekin lan egingo dugu DHL-rekin.



Langileen baldintzak ez ditugu arriskuan jarriko, horretarako enpresak aseguru etxe bat eta abokatu bat kontratatuko du. Gure enpresa "Reale Seguros" seguruarekin akordio batera iritsi da, aseguru honek hemendik aurrera enpresan lanean dauden langileen baldintzak hobetuko ditu; eta abokatua gure inguruko pertsona bat izango da.

Ez dakigu nahikoa izango den guk enpresarentzat jartzen dugun dirua, bakoitzak 1000€ jarri beharko ditu hasteko, horregatik, badaezpada mailegu bat eskatuko diogu bankuari, 2000€ eskatuko dizkiogu. Gero %3.5 interesak ordaindu beharko ditugu. Laboral-Kutxa bankuan eskatuko mailegua, han izan dugulako tratu hoberena eta eskaintza merkeena.

Herriko udalek ere diru laguntzak emango dizkigute hau guztia, aurrera ateratzeko. Gure herrietako udalak (Urretxu eta Zumarraga) eta erakunde publikoak, (Lanbide eta Movimiento Verde) funtsezko elkarrekin dira batik batik.

Proiektuaren publizitatea ere oso garrantzitsua iruditzen zaigu, horregatik, sare sozialetan su emango dugu etengabe, bezero guztiak adi-adi egon daitezten eta hainbat komunikabideetara ere hitz egitera joango gara, "Kakainzona-ra" (Urretxu-Zumarragako irratia), Ataun Irratira (Atauneko Irratia)... Izan ere, bi irradi horietako esataria herriko ezagun bat eta berarekin kontaktuan jarriko gara elkarrizketa egiteko. Urola garaiko egunkarian ere, hau da, hitzan emango dugu gure proiektuaren berri.

**EKOZIR**

